

2023ko MEMORIA

LABURPENA



Munduko Medikuak nazioarteko elkarte humanitario eta boluntarioa da. Guztiok osasunerako dugun eskubidea gauzatu dadin lan egiten du, eta bereziki jarduten du hala izan dadin pobrezia egoeran, genero desberdintasunean eta gizarte bazterketa egoeran bizi direnen edo giza krisien biktima direnen artean. Eta horixe lortu nahi du, osasun arretaren, salaketaren, testigantza eta ekintza politiko eta sozialaren bidez.

1980 Médecins du Monde Frantzia sortu zen.

1990 Médicos del Mundo Espainia eratu zen.

1995 Munduko Medikuak Euskadi sortu zen.

Munduko Medikuen Nazioarteko Sareak

17 ordezkaritza ditu guztira, Alemanian, Argentinan, Belgikan, Kanadan, Espainian, Estatu Batuetan, Frantzia, Grezian, Italian, Japonian, Luxenburgon, Holandan, Portugalen, Erresuma Batuan, Suedian, Suitzan eta Turkian. Helburu komun bat dute horiek guztiak: talde ahulenei osasun arreta ematea eta bidegabekeriaren kausak eta horien erantzuleak salatzea.

Garapenerako lankidetzaren eremuan lan egiten dugu, epe luzeko proiektuen bitartez, eta herrialdeko bertako osasun egiturari txertatzen ditugu proiektu horiek.

Ekintza Humanitarioari dagokionez, gerrak, gaixotasunek edo hondamendi naturalek kaltetutako lekuetan bertan aritzen gara, premiaz.

Munduko Medikuak elkartearen egoitzan bertako **kolektibo zaurgarriekin** ere jarduten da, bereziki osasun sistema publikoa erabiltzeko zailtasunak dituztenekin.

Boluntariotza konpromisoaren bidez eta beste gizarte mugimenduekin batera, kontzientzia kritikoak sortzeko prozesuak bultzatzen ditugu, gizarte aldaketarekin konprometitu den herritar multzo globalari begira.

GARDENTASUNA

Bazkideek berek zuzendutako elkarte gara. Bazkide horiek borondatez parte hartzen dute, ekonomikoki elkarteari eusten laguntzen diote eta erakundearen ekintzei buruzko erabaki estrategikoak hartzen dituzte.



ARRETA ETA SALAKETA

Eskubideak urratu zaizkien pertsonen arreta emateaz gain, bidegabekeriak eragiten dituzten arrazoiak salatzen ditugu, eta gobernuaren presio ekintzak sustatzen ditugu, egoera horiek zuzentzeko.

NOR GARA

MUNDUKO MEDIKUAK - HONAKO HAUEK OSATZEN DUGU

68

bazkide
(40 emakume
eta 28 gizon)

140

boluntario
(101 emakume
eta 39 gizon)

23

pertsona
kontratupean
(20 emakume
eta 3 gizon)

1.352

pertsona
eta erakunde
bazkide
laguntzaile

76

erakunde
laguntzaile
(41 publikoak eta
sozialak /
35 pribatuak)



📷 Munduko Medikak taldearen bilera.



📷 Boluntarioen Eguna. Munduko Medikak taldea utzi duen Zuzendaritza Batzordeari agurra.

TESTUINGURU HUMANITARIOA

2023an, autonomia erkidegoaren lurralde garapena sendotu eta zabaltu genuen komunitate eta indarkeria programen bidez, bereziki prostituzioaren eta salerosketaren eremuan. Immigrazioaren eta Eraldaketarako Hezkuntzaren alorreko gure programek gizartean eragina duten esparruetan, arrazakeriaren aurkako eremuan eta tratu onen esparruan jarri dute arreta.

Euskadin badakigu testuinguru globalizatuan eta aldakorrean bizi garela, eta horren parte direla administrazio publikoek COVID-19aren pandemiak eragin zituen ondorio ekonomiko larriak arintzeko helburuarekin bultzatutako berreskuratze eta eraldatze planak, honako ildo hauen bidez: trantsizio teknologikoa eta digitala, trantsizio energetiko-klimatikoa eta trantsizio sozial eta sanitarioa.

Bereziki kezkatzen gaitu desberdintasun arrakalak areagotzen dituzten eta arazoaren egiturari sakontzen ez duten Europako politiken aplikazioak. Ildo horretatik, beharrezkotzat jotzen dugu osasun, gizarte eta hezkuntza arloko hurbileko zerbitzuen izaera publikoa indartzea.

Erakunde publikoei eskatzen diegu politika publikoak bultzatzea justizia sozialaren eta jasangarritasunaren bidetik eta pertsonen bizitzaren zerbitzura arituko den eta arreta zaintzan jarriko duen ekonomia-aren alde. Erakunde sozialek eta sareek garrantzizko zeregina betetzen dugu 2024ko hauteskunde autonomikoen eta europarren programetan eragiteko.

Esparru politiko eta sozialaren polarizazioa sendotzen ari dela ikusten ari gara, murriztu beharrean. Erakunde publikoen, gizarte erakundearen eta herritarren zeregina funtsezkoa da beldur xenofobo, homofobo eta matxistaren diskurtsoei aurre egiteko, eta, zoritxarrez, beldur horren gainean ari da gertatzen normalizazio prozesua.

Gutxienez bi krisi globali egin behar diegu erreferentzia. Alde batetik, Ukrainako gerrak ondorio larriak eragin ditu mundu osoan, bai ondorio ekonomiko eta geostrategikoak, bai elikadura segurtasun ahula Afrikako zati handi batean zein munduko beste herrialde batzuetan. Bestalde, Israelen eta Palestinaren arteko gatazkak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta gerraren legeen muga guztiak gainditu ditu. Zalantzarik gabe, paradigma aldaketa baten aurrean gaude, non giza eskubideen urraketa lotsagarria gertatzen baita nazioarteko komunitatearen begirada pasiboaren aurrean.

GURE LANA 2023an

Gizarte aldaketaren eragile garen aldetik, modu aktiboan inplikatzeko gara, gure esku-hartzearen bidez, osasunerako eskubidea urratzen dituzten arau, politika eta jardun sozialak ezabatzeko helburuarekin.

Ildo horretatik, lanean jarraitzen dugu pertsona guztien osasunerako eskubide eraginkorra bermatzeko, eta bidegabekeriak eta desberdintasunak eragiten dituzten gizarte egiturak aldatzen laguntzeko.

Zoritxarrez, badira oraindik osasunerako eskubidea aitortuta ez duten pertsonak; beraz, ezinbestekoa da eskaintzen dugun arreta soziosanitarioa.

URTEAREN AZTERKETA

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren bidez herritarrak hezteko estrategiak gauzatzen ditugu, pertsonak eta subjektuak ahalduzera bideratutako pentsamendu kritiko batetik abiatuta, errealitatea eraldatzen laguntzeko gai izan daitezen.

Eskubideen urraketak ikusarazi eta agerian uzten dituzten ekintzen bidez egiten dugu hori, ikastetxeetako hezkuntza eremu formalean zein gizarte zibilarekiko eremu informalean hezteko ekintzen bidez, bai eta sareko lanaren bitartez ere; hala, eragin politikoko ekintzak eta herritarrak gizarte aldaketarantz mobilizatzen dituzten ekintzak gauzatzen ditugu.


Aurten, gure programen garapena sendotu dugu **Araba** eta arretarako lokal berri bat irekitzea lortu dugu **Barakaldon**, udalerrian esku-hartze komunitarioak dugun programa indartzeko. Bestalde, prostituzioaren/ salerosketaren eremuan dugun lana sendotu dugu, eta **Prostituzio egoeran dauden emakumeentzako Gizarteratze eta Laneratze Planaren** barruan sartu gara – Munduko Medikuek erakundearen proiektu berri eta handinahia inondik ere–. Plan horren bitartez, kolektibo horri bere eskubideak berreskuratzeko aukera emango dioten irtenbide erreal eta eraginkorrak bilatzen

dira. Eta, gainera, abenduan **Zuzendaritza Batzordea berri** genuen Euskadin.

Nazioarteko lankidetzaren programen bidez, bai hemen, bai beste herrialde batzuetan bidegabekeriak eta desberdintasun sozialek ekarritako ondorioei erantzun dieten ereduak heldu nahi dugu. Nazioarteko lankidetzaren politikak hobetzeak ez du arriskuan jartzen inolako gizarte politikarik, ezta gure eskubide bakar bat ere. Eta politika horiek giza eskubideen urraketa hori eragiten duten egiturazko kausak identifikatu eta salatzera bideratu behar dira, eta, aldi berean, horiek desagerrarazteko alternatibak sustatu.

Gizarte aldaketan eragile gisa betetzen dugun eginkizuna finkatzea dagokigu, eta gure misioaren helburua eta erakunde gisa beharrezkoa den barne garapena orekaz moldatzea. Entzun behar dugu gure erakundeari zer eskatzen zaion, zertarako gauden gaur egungo testuinguruan, non gero eta argiago ikusten baita oinarritzeko eskubideei dagokienez okerrera egiten ari garela.

 *Prostituzio egoeran dauden emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko plana, Plangintza Estrategikoaren Aurkezpena.*



Munduko Medikuak erakundearen ildo estrategikoen artean, osasunerako eskubidearen aldeko herritartasun aktiboa eraikitzen laguntzea nabarmentzen da, eta, horretarako, ekintza ildo nagusi hauei jarraitzen zaie: Giza Eskubideei dagokienez kritikoa den herritartasun baten sorrera sustatzea, bereziki osasunerako eskubideari dagokienez, eta orobat sustatzea aktibismoa eta herritarren mobilizazioa, gizartearen aldaketa bultzatzeko.

Gizarte aldaketa hori mobilizazio sozialaren bidez sustatzen du Euskadiko Munduko Medikuak erakundeak, eta honako eremu nagusi hauek hartzen ditu: elkarte garapena, sentsibilizazioa eta gizartea eraldatzeko hezkuntza.

ELKARTE GARAPENA

Euskadiko Munduko Medikuak erakundearen ustez, boluntariotza funtsezkoa da gizartearen eraldaketa lortzeko, betiere, osasunerako eskubideari begira, arrazakeriaren kontrako ikuspegitik, genero ikuspegitik eta sexu aniztasunaren ikuspegitik. Honako helburu hauek bilatzen ditu:

Euskal herritarrei zuzendutako sentsibilizazio ekimenak bultzatzea ekintza boluntarioek eta parte-hartze sozialak duten balioaren inguruan, boluntariotzaren balioa ikusarazi eta aitortu dadin sustatuz.

Boluntariotzaren gaikuntza eta garapena sustatzea Euskadiko esku-hartze sozialaren erronken aurrean, boluntariotza tokiko, eskualdeko eta estatuko erakunde, plataforma eta lan sareetan ordezka dadin bultzatuz.

Digitalizazioa, teknologien erabilera eta sare sozialak sustatzea, ekintza boluntariorako

komunikazio, konexio eta irisgarritasun tresna gisa.

Aurten ikus-entzunezko materialak diseinatu eta landu dira **“Voluntariado, semilla del cambio” / “Boluntariotasuna, aldaketaren hazia”**, kanpainarako. Kanpaina horren helburua izan da ekintza boluntarioarekiko sentikorrak eta aktiboak diren euskal herritarren motibazioa LANTZEA eta Euskadin elkarte sare dinamiko bat sustatzea, eta, horretarako, euskal herritarrek esku-hartze sozialean borondatez parte hartzeko beharrezkoak diren espazioak, gaikuntza, laguntza eta tresnak jarri dira eskura. Hala, EREIN, sentsibilizatu eta ekintza boluntarioa sustatu da; UREZTATU egin da, horretarako gaitasunak eratuz eta sortuz; eta UZTA BILDU, da lortutako lorpenak ikusaraziz, partekatuz eta komunikatuz.

BOLUNTARIOTASUNA ALDAKETAREN HAZIA
VOLUNTARIADO, SEMILLA DEL CAMBIO

SENTSIBILIZAZIOA

Gure sentsibilizazio ekintzak eta jarduerak askotariko gaiei buruzkoak dira, eta Giza Eskubideekiko herritar kritikoak sortzea dute helburu nagusi, bereziki osasunerako eskubideekiko eta sexu eta ugalketa eskubideekiko kritikoak.

2023an, aipatzekoa da etengabe jardun dugula lanean emakumeen aurkako indarkeriaren funtsezko adierazpenen sentsibilizazioan eta prebentzioan, hala nola honako adierazpen hauen inguruan:

MOBILIZAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA



Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EMG):

prestakuntza eman diegu arlo soziosanitarioko profesionalei, baita tailerrak ere gizon eta emakume migratzaileei, bereziki EMGaren prebalentzia handia duten herrialdeetako, eta sentsibilizazio jarduerak egin ditugu, Nire Borroka, gure borroka argazki erakusketaren bitartez.

Gure helburuak lortzeko, funtsezkoa da **sareko lanarekin** jarraitzea, maila guztietan: tokikoa, eskualdekoa, estatukoa eta Europakoa. Nabarmentzekoa da, bestalde, gure partaidetza honako sare hauetan: EMGrik eta beste indarkeria matxistarik gabeko Estatuko Sarean, END FGM Europako Sarean, Salerosketaren aurkako Espainiako Sarean, eta Emakunderen sexu esplotaziorako emakumeen eta neskatoen salerosketaren aurkako Koordinazio Mahaian, bai eta beste sare hauetan ere: Euskadiko Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Europako Sarea, ZAS! Zurrumurruen kontrako Euskal Sarea, Harresiak Apurtuz – Euskadiko Etorikinei laguntza emateko GKE-en koordinakundea eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundea.

[1] EMGren kontrako kanpaina "Mitoak hausten ditugu". #StopMutilación. Bilbao. **[2]** Boluntarioen Topaketaren eta Urteko Batzarraren Kartela. Bilbao. **[3]** "Nire borroka, gure borroka" erakusketaren kartela, Alegria-Dulantzi, Araba. **[4]** "EMG Prebentziorako eta Arretarako prestakuntza" ikastaroaren kartela, Lezan, Araba. **[5]** "Evaren sagarra" proiektioaren kartela, Biasterin, Araba.

EMAKUMEEN GENITALEN MUTILAZIOA

HELDUEN HEZKUNTZARAKO ZENTROAK (ARABA)

92 pertsona prestatu dira irakasleen artean
299 pertsona ikasleen artean

NICOLÁS LARBURUA PRESTAKUNTZA ZENTROA (BARAKALDO)

2 pertsona prestatu dira irakasleen artean
36 pertsona ikasleen artean

Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza pentsamendu kritikoa indartzera bideratutako prozesua da. Horretarako, galderak egingo dizkiogu geure buruari, zalantzan jarriko ditugu ikasitako diskurtsoak, aginduak eta hizkuntzak, eta gizarte desberdintasunak eusten dituzten gizarte egiturak. Era horretara elikatuko ditugu elkarrikitza eta ekintza arduratsuak, kontzientek eta justizia sozialarekin eta bizitzarekin konprometituta.

Hainbat dimentsiotatik heltzen diogu Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntzari: hezkuntza eremu formalean, informalean eta ez-formalean, eta sentsibilizazioa eta eragin politikorako ekintzak egiten ditugu. Horien bitartez, ikaskuntzak adierazgarriak dira, eta baliotsuak, eskubide, erantzukizun eta betebeharren titularrentzat, horiek baitira gizartearen eraldaketari laguntzen dioten subjektu protagonistak. Eta 2023an hainbat proiekturen bidez inplementatu genuen hori guztia:

GENDER: proiektuaren bigarren fasea, nerabezaroan eta gaztaroan (ziber)indarkeria matxisten aurrean tratatu onak lantzeko hezkuntza proposamena, aurten Bilboko Maristak hezkuntza komunitatean gauzatu dena. Hezkuntza komunitateekin prozesu

kritiko-afektiboak indartu nahi ditu, eta, horretarako, norberaren ezagutza bultzatzen du, eta harreman osasungarriren eta gizarte partaidetzaren eta eragin politikoaren alde egiten du, genero desberdintasunen, estereotipoen eta rolen aurrean, bereziki sare sozialen erabilera azpimarratuz eta berdintasunean oinarritutako eredu sozioafektiboak elikatuz, tokiko indarkeria matxistari eta indarkeria matxista globalari aurre hartzeko helburuarekin.

MUGITZEN ARI DEN MUNDUA, ESKUBIDE KONTUA: proiektu honek migrazio prozesuak eragiten dituzten kausetara zabaldu nahi izan du arreta, migrazio eta muga politiken erantzukizunak azalduz eta generoaren eta giza eskubideen ikuspegia txertatuz. Horretarako, etorkinei eta errefuxiatuei buruzko estereotipoak eta aurreiritziei aurre egiteko tresnak eman dizkiegu BHI Larrea zentroko, Nicolas Larburu lanbide heziketako zentroko, Deustuko Unibertsitateko eta EHUKo, eta Euskadi Kubako esperientzia gelako ikasleei, kontzientzia kritikoa sortuz horrela.

AFRIKAN MURGILTZEN: bigarren hezkuntzako komunitateekin Afrikari buruzko iruditeria berrikusteko hezkuntza proposamena, kontinente horri begirada berri eta positiboa emateko, ikuspegi

GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA (EpTS)

GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

3 hezkuntza proposamen bigarren mailako hezkuntza komunitateentzat

396 pertsona ikasleen aldetik

30 pertsona irakasleen aldetik

88 ordezkari IGEaren aldetik

5 erakusketa publiko

2 jardunaldi publiko

dekolonialetik, kontatu ez zaizkigun istorioak kontatuz eta erreferente historikoak eta garaikideak eskainiz. Bestalde, arrazakeria eta xenofobia bultzatzen dituzten aurreiritzien eta estereotipoen aurrean parte-hartze soziala sustatzen da.

Proiektu horiei buruzko informazio gehiago eta material didaktikoak, webgune honetan: www.semillaseducativas.org

 [1] eta [2] "Zergatik jardun arrazismoaren kontrako hezkuntzaz?" mahai-ingurua eta kartela. [3] Racismos cotidianos fanzinea. [4] "Arte dekoloniala gizarte eraldaketaren tresna gisa".



Gizarte inklusioaren eremuaren helburua da egoera ahulean dauden pertsonen osasunerako eskubidea izatea. Ildo horretatik, gure lan esparrua bi biztanleria talde hauetan dago: gizarte bazterketa egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden atzerriar jatorriko pertsonak eta eremu soziosanitarioan pertsonekin lan egiten duten profesionalak.

Immigrazioaren eremuan, Esku-hartze Komunitarioko, Gizarte inklusioko eta Bizikidetzako programen bitartez, hainbat esku-hartze esparru lantzen ditugu.

[1]



Alde batetik, **HARRERA**ren esparruan, atzerriarrak harrera gizartearen integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntza eta informazio espazioen, laguntzaileen, banakako arretaren eta abarren bidez. Era berean, erantzukizunen titularrekin esku hartzen dugu, atzerriko biztanleekiko jarrerak eta pertzepzioak aldatzeko xedez.

Bigarrenik, **BIZIKIDETZA**ren esparrua lantzen dugu, bertako eta atzerriko herritarren arteko bizikidetzaren errazteko eta sustatzeko, kulturen arteko ezagutzan, ulermenean eta errespetuan oinarrituta, batez ere hezkuntzaren eremuan eta gazteen artean. Halaber, osasun komunitarioa hobetzeko ezagutzak eskuratzea sustatzen eta indartzen dugu, osasunaren mugatzaile sozialak landuz.

Era berean, **GENEROA**ren esparruaren alde egiten dugu, genero berdintasunarekiko eta sexu aniztasunarekiko errespetua sustatzeko. Ildo horretan, pertsona helduekin zein gazteekin lan egiten dugu, ekitatiboagoa izango den belaunaldi berri bat osatzeko, gizon eta emakumez osatutako talde mistoekin.

Beste lan ildo bat **BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO BORROKA** da, herritar atzerriarrekiko jarrera eta pertzepzio diskriminatzaileak murrizteko helburuarekin. Horretarako, hezkuntzaren arloko prestakuntza jarduerak egingo dira gazteekin; elkar ezagutzeko jarduerak eta gizarte sentsibilizazioak, zurrumurruen eta estereotipoen gaiak hezkuntza eremu formalek eta informalek abiatuta landuz eta erantzukizunen titularrekin lan egiteari utzi gabe.

PARTAIDETZAren esparrua ere lantzen dugu, zeinaren bitartez sustatu eta indartu nahi baita atzerriar jatorriko pertsonen elkarteetako elkarbizitza, bereziki emakumeena, gizarteratze eta inklusio dinamikak sortzeko.

Azkenik, **GIB/HIES**aren prebentzioan lan egiten dugu, prestakuntza tailerren bidez eta proba azkarrak eginez.

 [1] Tailerrak migratutako emakumeekin, Barakaldon. [2] Gizarte Lanaren kontsulta. [3] Prestakuntzak Munduko Medikuek erakundean. [4] Inaugurazioa Barakaldon. [5] Antzerki antzezpena Getxon. [6] Sentsibilizazio kanpaina kalean, GIB/HIESaren Prebentziorako Munduko Egunean. [7] eta [8] "Arrazakeriak historizatuz" kartela eta jardunaldia. [9] "Haziak" Kafe eta Te tailerra, Bilbon. [10] "Gure artean" tailerra, emakumeentzat Bilbon. [11] "Barakaldon Bizi" tailerra, Barakaldon. [12] "Zaintzak zaintzen duten pertsonentzat" Bilbon. [13] "Hezitzaileak Eskubide sexualetan eta erreproduktiboetan" tailerra, Bilbon.

GIZARTE INKLUSIOA

IMMIGRAZIOA

1.561 Onuradun

4.248 Esku-hartze

3.700 Esku-hartze ordu

802 Pertsona artatu dira medikuaren kontsultan

937 Pertsona artatu dira gizarte laneko kontsultan

1.025 Arreta, informazioan, orientazioan eta babesean

82 Urratze osasunerako sarbideari dagokionez

90 Akonpainamendu osasunerako eskubidearen urraketan

7 Akonpainamendu osasun zentroetara



173 Prestakuntza jarduera

62 Herritartasun

22 Tailer profesionalei

221 Pertsona prestatuak esparru soziosanitarioan

50 Pertsona prestatuak migratzaileen elkartetan



Munduko Medikuek elkartetik 2022an hasitako bidea sendotzen ari gara, eta ahultasun egoeran dauden pertsonen osasunerako sarbidea eraginkorra izan dadin lanean jarraitzen dugu. Sarean lan egiten dugu kolektibo, elkarte eta profesional soziosanitarioekin, gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen osasunerako eskubidea bermatzeko.

GIZARTE INKLUSIOAren eremuan herritarren parte-hartzea sustatzea eta arabarrentzat eta atzerriar jatorriko pertsonentzat, bereziki emakumeentzat, lankidetzagune gisa eratzea bilatzen da, eta bide horretatik lan handia egin dugu boluntario aktibo eta konprometituen talde bat fidelizatuz eta sendotuz.

HARRERAren esparruan, atzerriarrak harrera gizartean integratzea sustatzen dugu, arreta soziosanitarioko zentroaren (CASSIN), prestakuntza eta informazio espazioen, laguntzaileen, banakako arretaren, eta abarren bidez. Era berean, osasuna bultzatzen dugu komunitatearen ezagutzak eta osasuna hobetuko dituzten tailerren eta ikastaroen bitartez, eta osasunaren mugarriak lantzen ditugu.

Era berean, **GENERO BERDINTASUNA** esparruaren alde egiten dugu, eta emakumearen kontrako indarkeriaren prebentzioaren alde, bereziki emakumeen mutilazio genitala desagerrarazi dadin. Ildo horretan, herritarrekin oro har eta mutilazio genitala egiten den herrialdeetatik datozen pertsonekin lan egiten dugu,

bai eta osasunaren eta hezkuntzaren arloko langileekin ere.

Beste lan ildo bat **GIZARTEAREN ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA** da, eta, hortik, pentsamendu kritikoa sortzea bilatzen dugu, herritartasun aktibo eta solidarioa eraikitze asmoz, hau da, giza garapen jasangarri baterantz eraldatzeko kontzientzia kritikoa eta eraikitzailea izango duen gizartea.


Zehazki, atzerriar jatorriko biztanleenganako diskriminazioaren aurkako borroka lantzen dugu hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneetan.

 [1] Otsailak 6. Zero Tolerantzia Emakumeen Mutilazio Genitalaren aurrean, Nazioarteko Eguna. #Nosotrasrompermoslosmitos kanpaina, Araban. [2] Arreta soziosanitarioko kontsulta, Gasteizen. [3] Arabako Munduko Medikuen bulegoa. [4] Munduko Medikuek erakundearen ibilaldiak Araban.

INKLUSIOA ARABAN

- 100** Medikuen kontsultan arreta jaso duten pertsonak
- 96** Gizarte lanaren kontsultan arreta jaso duten pertsonak
- 90** Parte-hartzaile osasuna sustatzeko ikastaroetan
- 46** Profesional osasunaren esparruan prestatuak

ARABA





Munduko Medikuek erakundeak, Berdintasun Ministerioarekin eta erreferentziazko 4 GKerekin batera, **prostituzio egoeran dauden emakumeentzako Gizarteratze eta Laneratze Plana** jarri du abian. Plan horren helburua da oinarritzko zerbitzuetarako sarbidea bermatzea eta emakumeen kolektibo hori gizarteratu dadin sustatzea, horietako asko oso egoera ahulean baitaude.

Gizarteratze eta Laneratze Planaren bidez, emakumeak bai banan-banan bai gizartean erabat osatzea bilatzen dugu, prostituzioak eragiten dituen kalteak eta ondorioak gainditzeko, **enplegu egonkorra eta lan baldintza duinak** bermatzeko eta **salerosketaren eta esplotazioaren biktima diren haur eta nerabeei** tutoretzapeko zentroetan **laguntza** eskaintzeko, haien **osatzeko fisikoa, psikologikoa eta erreproduktiboa** sustatuz.

Gure ikuspegiak hainbat esku-hartze biltzen ditu, alderdi sozial, psikologiko, juridiko eta laboraletan laguntza integrala eskaintzeko helburuarekin.

GIZARTE ARRETA ETA LAGUNTZA

2023an, **1.744 pertsonari** egin zitzaion **arreta**, gizarteratze eta laneratze zerbitzuetan eta arreta

integraleko zerbitzuan banatuta. **398 emakumeri** eman zitzaion arreta, eta hainbat arlotan jaso zuten laguntza.

Taldeak **koordinazio instituzionalak** egin zituen hainbat administrazio eta gizarte erakunderekin, eta gizarte zerbitzu publikoekiko eta ostatu hartzeko baliabideekiko elkarreragina nabarmendu zuen. Azpimarratzekoa da modu aktiboan parte hartu dugula Eusko Jaurlaritzaren **Sexu Esplotazioarako Emakumeen eta Nesken Salerosketaren aurkako Mahaian**.

Informazioa, orientazioa eta **aholkularitza** eskaini zen funtsezko gaiei dagokienez, hala nola gizarte laguntzei, prestazio ekonomikoari eta eskura zeuden baliabideei dagokionez, eta **55 esku-hartze** egin ziren esparru horretan.

ARRETA PSIKOLOGIKOA ETA PSIKOSOSIALA

403 esku-hartze psikologiko eta 695 esku-hartze psikosozial egin ziren, ikuspegi sendoarekin osasun mentalaren, emozionalaren eta ahalduentzeko eta autoestimua indartzeko eremuan. Esparru horretan egindako arreta kopuru handiak erakusten du zein garrantzizkoa den eskubideen titular horiek

PROSTITUZIO

EGOERAN DAUDEN EMAKUMEAK

GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA

aurre egin behar dieten traumei eta zailtasun emozionalei heltzea.

Esku-hartze aipagarrienen artean honako hauek daude: emozioei eustea eta entzute aktiboa (162 esku-hartze) eta laguntza psikosoziala (143 esku-hartze). Horiek funtsezkoak dira emakumeei berehalako euskarri jarraitua emateko. Gainera, banakako 80 esku-hartze terapeutiko egin ziren, eta 156 esku-hartze ahalduztzean eta autoestimua indartzean oinarrituta. Alderdi horiek funtsezkoak dira artatutako emakumeen erresilientzia eta ongizate orokorra hobetzeko.

Osasun mentalean eta baliabide espezializatuekin koordinazioan oinarritutako diziplinarteko esku-hartzeak egin ziren, emakumeak oneratzeko erabateko arreta bermatuz. Krisialdiko esku-hartzeak eta osasun mentaleko psikohezkuntza funtsezkoak izan ziren larrialdi emozionalak kudeatzeko eta emakumeak egoeren gobernua ahalduztzeko.

ARRETA JURIDIKOA ETA GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA

2023ko bigarren sei hilekoan, indartu egin genuen legearen arloa, arreta juridikoko zerbitzua ireki baikenuen. Horri esker, gehiago espezializatu ginen, eta eskubideen 47 titularrengana iritsi ginen. Aholkularitza eta laguntza eskaintzen

dugu funtsezko gaitetan, hala nola errotze egoerak, egoitza baimenak eta nazioarteko babesa. Emakume horietako gehienak egoera administratibo irregularrean daude; hortaz, funtsezkoa da beren estatusa araupetzea, legez dagozkien eskubideez balia daitezen.

Araupetze prozesua ez badago ere beti zuzenean lotuta Gizarteratze eta Laneratze Planarekin, bi prozesuek elkarri eragin diezaioke. Gizarteratze eta Laneratze Planaren helburua da prostituziotik irteten eta beren eskubideak berreskuratu nahi dituzten emakumeei alternatibak eskaintzea. 2023. urtean 302 esku-hartze egin ziren tailerren eta talde prestakuntzaren bidez, haien gaitasunak eta enplegarritasuna hobetzeko xedez. Laneratze bakoan ibilbideak ere inplementatzen ditugu; emaitza onak lortu dira horiekin, eta independentzia ekonomikoa eta autonomia lortzen lagundu diete.

2023an, prostituzio egoeran dauden emakumeentzako Gizarteratze eta Laneratze Planak erronka handiei aurre egin die, artatutako emakumeen egoera konplexua kontuan hartuta, baina, ikuspegi integral eta koordinatuaren bidez, laguntza sendoa eskaini ahal izan zaie hainbat eremutan, haien gizarteratzea sustatuz eta haien bizi baldintzak hobetuz.

MUNDUKO MEDIKUAK ERAKUNDEAREN PROGRAMA BERRIA 2023. URTEAZ GEROZTIK PROSTITUZIO EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA

398 Emakume, prostituzio egoeran eta arreta jaso dutenak / **1.744** Esku-hartze egin dira / **258** Kit banatu dira, prebentziorako materialarekin / **89** Esku-hartze juridiko egin dira (47 pertsona) / **461** Esku-hartze hezkuntzaren arloan (256 pertsona) / **140** Esku-hartze gizarte arloan (73 pertsona) / **403** Esku-hartze psikologiko (179 pertsona) / **695** Esku-hartze psikosozial (235 pertsona) / **41** Esku-hartze jarri dira abian prostituzio guneetan (9 klub eta 32 etxebizitza) / **42** Emakume prostituzio egoeran, laneratze prozesuan / **302** Esku-hartze taldeko tailerretan (87 pertsona) / **1** Terapia psikologikoko gunea, taldean hilean behin



[1] Ahalduztze tailerra. [2] Laguntza Gizarteratze eta Laneratze Planaren. [3] Munduko Medikuak estrategia bilera. [4] Gizarteratze eta laneratze tailerra.

ERAGINA, SARE LANA EUSKADIN ETA SENEGALEN

Aurten, nazioarteko lankidetzaren esparrua sareko lanean zentratu da, eragin politikoa kontuan hartuta. Bilboko Udalaren Lankidetzaren Kontseiluan parte hartu dugu, lan mahai espezifikoetan, Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehentasun sektorial eta geografikoetan eta gainerako administrazio publikoekin.

SENEGAL

Senegalen, Haurren Nutrizioa Osatzeko Zentro bat eraiki da, malnutrizio kasuei estaldura emateko, baita ospitaleratzeko premia duten malnutrizio akutu larriko kasuei ere. Guztira 350.707 lagunek jaso dute laguntza Yeumbeul Osasun Barrutian.

TESTUINGURUA

Senegalgo UNDPren azken datuen arabera, Giza Garapenaren Indizearen balioa 0,517 da herrialde horretan, hau da, herrialdea giza garapenaren kategoria baxuan kokatzen du, eta, horren ondorioz, 169. postuan jartzen du 193 herrialdeko zerrendan.

Senegalgo biztanleria 18.032.473 biztanlekoa dela kalkulatzen da, eta gero eta gehiago urbanizatzeko joera badago ere, oraindik ere landa eremukoa izaten jarraitzen du, hau da, 6.920.894 pertsona, biztanleria osoaren % 52,4. Genero berdintasunaren indizearen azken balioa 0,496koa da (2022. urtea).

Generoaren ikuspegitik, faktore soziokulturalak zehazten eta egituratzen dituzte gizonen eta

emakumeen arteko harremanak. Jaiotzen direnetik, ohiturek eta tradizioek eragin handia dute haien jardunetan, jokabidean eta jarreretan. Hala, adinaren eta jatorriaren arabera, gizarteak kulturalki zehaztutakoaren arabera gizarte eragile gisa haiengandik espero diren gizarte rola eta erantzukizunak hartzen dituzte gizonak eta emakumeak.

Gaur egun, bizirik jaiotako 100.000tik 392ko tasa du Senegalek. Gobernuak lehentasuna eman dio amaren, jaioberrien, haurren, nerabeen eta gazteen osasunari. Haurdunaldian, erditzeko orduan eta erditu ostean garrantzitsuak dira osasun arretako zerbitzuak, amaren eta haurraren biziraupenerako eta ongizaterako. Hori dela eta, hainbat estrategia aplikatzen ari dira amaren eta jaioberriaren osasuna modu jasangarrian hobetzeko.

Herrialde horrek gizartearen arloan azken hamarkadan landutako beste alderdi bat migrazioa izan da. Emigranteen izaerari eta kopuruari dagokienez, gehienak gizonetakoak dira. Hala ere, gero eta emakume gehiago daude barneko eta kanpoko migrazio fluxuetan. Herri askotan, etxean geratu diren emakumeek beren gain hartu dituzte gizonen berezko erantzukizunak, eta, aldi berean, emigratu duten senarren gurasoen aginpideari men egin behar izan diote, bortizki batzuetan.

Ekonomiaren arloan, Senegalek hazkundeari ekin dio, % 6,6koa izanik urteko batez besteko tasa. Duela hamarkada bat hasitako erreformen eta inbertsio proiektuekin egindako ahaleginaren emaitza, inondik ere.

Ikuspegi politikotik, hainbat garapen estrategia baliatu dira, eta Senegal Plan Emergentea

NAZIOARTEKO LANKIDETZA



da erreferentziatzko dokumentua, dagozkion helburu eta lehentasunekin. Eta osasunaren ikuspegitik, Osasun eta Gizarte Garapeneko Plan Nazionala 2019-2025 da erreferentziatzko dokumentua.

GURE LANA 2023an

Munduko Medikuek erakundeak lan egonkorra egiten du 2003. urteaz geroztik Senegalen. 20 urte horietan, 30 lankidetzat proiektu baino gehiago gauzatu ditu osasunaren arloan, tokiko hainbat kiderekin batera. Kasu gehienetan Osasun Ministerioaren laguntza izan du, baina baita egitura deszentralizatuena eta Senegalgo gizarte zibilarrena ere. Honako hauek dira lan arlo nagusiak: ama-haurren osasuna, lehen mailako arreta sistema indartzea, sexu eta ugalketa osasuna hobetzea, osasun estaldura unibertsala eta programa bertikalak sustatzea: GIB/HIESa, generoan oinarritutako indarkeria eta malaria.

Denbora horretan guztian, Munduko Medikuek erakundeak herrialdeko hainbat eremutan jardun du, bai landa eremuetan, bai hiri eremuetan.

MARTXAN DIREN PROIEKTUAK

Genero indarkeriarik gabeko gizarte baten alde Pikineko departamenduan.

Iraupena: 2021eko abenduaren 31 – 2023ko martxoaren 31. **Aurrekontua:** 100.242 euro.

5 urtetik beherakoentzako osasun sistema eta osasun nutrizionaleko zerbitzuetan tratamendua emateko prozesua indartzea Yeumbeul osasun barrutian, Dakar.

Iraupena: 2022ko irailaren 15a – 2023ko urriaren 14a. **Aurrekontua:** 70.000 euro.

Dakar eta Mbour-eko herri garrantzitsuetako emakumeek osasun zerbitzuetarako eta ongizate ekonomiko eta sozialerako sarbidea izan dezaten sustatzea.

Iraupena: 2022ko abenduaren 15a – 2023ko abenduaren 14a. **Aurrekontua:** 100.000 euro.

Guédiawaye departamenduan, Dakar eskualdean, giza eskubideak sustatzeko generoan oinarritutako indarkeriaren aurka borrokatzeko estrategiei laguntzea.

Iraupena: 2023ko uztailaren 1a – 2024ko ekainaren 30a. **Aurrekontua:** 70.000 euro.

Gizarte berdinzaleago bati laguntzea, Dakar, Kaolack, Thiès eta Mbour eskualdetako talde bereziki ahuletako emakumeak ardatz hartuta.

Iraupena: 2023ko irailaren 1a – 2024ko urriaren 31. **Aurrekontua:** 100.000 euro.

 [1] "Genero indarkeriarik gabeko gizarte baten alde Pikineko departamenduan" proiektuaren standak.
[2] "Emakumeen eta nesken kontrako indarkeria murriztea" sentsibilizazio karabana.

Munduko Medikuek erakundeko Aliantzen alorretik, gizarteari oro har eta bereziki euskal enpresa sareari, gonbita egiten diogu lankidetzak aliantzei ekiteko eta horiei eusteko, beren gizarte konpromisoaren bidez osasuna, hezkuntza, berdintasuna eta gure proiektu guztietan presente dauden garapen iraunkorreko beste helburu batzuk bermatzen laguntzeko.

Eta elkarteak osatzen duten pertsonak eta erakundeak, elkarrekin sarean lan egiten dutenak edo Euskadin beren kolaboratzaile direnak animatzen ditugu aldaketarako eragile gisa gizarteari ematen dioten babesaren eta ekarpenaren berri ematera, beren interes taldeak mobilizatzeko, bidegabekeriak ikusaraziz eta presente dauden sektore eta lurraldeetako inpaktu eta erronkei nola aurre egiten zaien ikusaraziz.

2023 EZ DA URTE ERRAZA IZAN MUNDUKO MENDIKUAK ERAKUNDEARENTZAT

Bere handitasunagatik ezinezkoa badirudi ere, Munduko Medikuen Nazioarteko Sarea presente dago, zuzenean edo tokiko elkarrekin elkarlanean, krisi humanitarioen testuinguru guztietan, ahotsa altxatuz, zainduz eta salatuz, pertsona ahulenen osasunerako eskubidearen babesean.

Egoitza guztietatik egiten dugu lan herritar horientzat: harrera, bizikidetzak, generoa, berdintasuna, diskriminazioaren aurkako borroka eta parte-hartzea.

EUSKADIKO MUNDUKO MEDIKUAK ERAKUNDEAREN ALIANTZAK

2023an bilketa pribatuaren bidez jasotako zenbatekoa % 17,60 gutxitu da aurreko urtekoarekin alderatuta, bereziki 2022an aparteko diru sarrerak jaso genituelako testamentu solidarioen bitartez.

Hala ere, **erakunde emaile** zahar eta berrietatik datozen ekarpenak % 30,05 handitu dira 2022. urtekoekin alderatuta, eta, beraz, nolabaiteko susperraldia ikusten da, nahiz eta erakunde batzuk pandemiaren osteko krisi ekonomikoaren eraginpean ez ezik, krisi energetikoaren, gerraren eta abarren eraginpean ere badauden. Hori dela eta, ezin dute laguntzen jarraitu, edo beren laguntzen zenbatekoa murriztu egin da.

21 enpresa eta Fundazioen konpromiso sozialari esker, Euskadiko tokiko programak martxan jarri eta horiekin jarraitu ahal izan dugu, nazioarteko beste lankidetzak proiektu batzuk babesteaz gainera.

Denbora eskaintzen eta ahalegina egiten jarraitzen dugu Munduko Medikuek erakundeak Araban duen bulegorako eta mediku kontsultarako (2022. urtearen amaieran inauguratu zen) lankidetzak bilatzeko lanean, lehen etapa honetan bultzatuko gaituzten tokiko aliantzak ezartzen saiatuz, lurralde honetan gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden talde ahulei laguntzeko helburuarekin, betiere.

ERAKUNDEEKIKO ALIANTZAK ETA EKITALDIAK

Dohaintza partikularrak % 11,62 igo dira aurten. Bizum bidezko bilketa handitu da bereziki; izan ere, kanal solidario horrek gero eta presentzia handiagoa du komunikazio-guneetan, ekitaldietan eta kanpaina pertsonalizatuetan, esaterako: “Bizum bat osasunaren alde”, Osasunaren Nazioarteko Eguna dela-eta zabaldua, edo “Eragin pedalei osasunaren alde”, Tourné Bilbaorekin lankidetzan.

Pandemiaren ondoren berreskuratzen ari gara **ekitaldietako parte-hartzea**: bi urteren ondoren itzuli gara **Tendencias Creativas Azokara**, Barakaldoko Azokan; inklusio taldeak antolatutako “Españul” lanaren antzezpenean parte hartu dugu, eta Starbucks®-ren “Aperturas con causa” kanpaina parte hartu dugu Bilbon. Horrek diru bilketa handitzea eragin du, aurreko urtearekin alderatuta. Gune horietan, dirua biltzeaz gain, gure lanaren berri eman, osasunerako eskubideari buruz sentsibilizatu eta gizartea eraldatzeko hezkuntzari buruzko haur tailerrak egiten ditugu.

Eta **produktu, zerbitzu edo zabalkundeko aliantzak** indartzen jarraitzen dugu, balio handiko eremuak baitira lankidetzari dagokionez, eta, horiei esker, erakundearen gastuak aurrezten dira, tailerrak egiteko eta funtsak biltzeko bertaratzen garen ekitaldietan laguntza lortzen da, eta euskal erakundeek eta gizarteak Munduko Medikuek erakundeak egindako lana aitortzea dakarte. Horien dohaintzen balioa % 102,15 handiagoa da 2022koaren aldean.

Sareko lanari eusteko, prestakuntza eta jardunaldi presentzial edo birtualetara joaten gara eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaren guneetan lan egiten dugu, era horretara, ikasteko eta lurraldean aliantzak ezartzeko.

📷 [1] “Eman pedalei osasunaren alde” kanpaina, Tourné Bilbaorekin. **Tendencias Creativas Azokara** eazokaren kartela, Bilbao Exhibition Centre. [3] “Bizum bat osasunaren alde” kanpaina. [4] Gizartearen Eraldaketarako Hezkuntza tailer familiarrak. [5] Erakundeekiko aliantzetako boluntariotza bilerak. [6] Starbucks bisita.

[1] Una campaña de Munduko Medikuek en colaboración con Tourné Bilbao para recaudar fondos para los proyectos en Euskadi

DONA Y PEDALEA POR LA SALUD

BIZUM MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI 00559

- ✓ Entra en BIZUM a través de tu móvil y selecciona la opción realizar DONACIÓN con el código 00559
- ✓ O deja una aportación en metálico en la hucha en Tourné
- ✓ ¡Y listo! Tu colaboración puede ayudarnos a cambiar vidas

Tourné

#pedaleaxlasalud

www.medicosdelmundo.org
euskadi@medicosdelmundo.org
Tel 844 790 322

[2] **TENDENCIAS CREATIVAS**
BEC | DEL 2 AL 5 DE FEBRERO

TALLERES
COMIDAS DEL MUNDO
HABITANTES DEL BASERRI
SALUD Y BIENESTAR

COLABORAN

Kaiku
Km0

aldaketa soziala

[3] ¿QUIERES COLABORAR POR EL DERECHO A LA SALUD PARA TODAS LAS PERSONAS?

7 DE ABRIL

DÍA MUNDIAL DE LA SALUD

COMPARTE UN BIZUM POR LA SALUD

BIZUM
00559 MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI

- ✓ ENTRA EN BIZUM A TRAVÉS DE LA APLICACIÓN BANCARIA DE TU MÓVIL SI ESTÁ ACTIVA.
- ✓ SELECCIONA LA OPCIÓN DE REALIZAR DONACIÓN.
- ✓ INTRODUCE EL CÓDIGO DE MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI: 00559
- ✓ ¡Y LISTO! CON TU AYUDA PUEDES CAMBIAR VIDAS.

¿NOS AYUDAS A DIFUNDIR ENTRE TUS CONTACTOS?

#UNBIZUMXLASALUD

Una campaña de Munduko Medikuek por la colaboración en el día del Día Mundial de la Salud



Munduko Medikuek erakundeko komunikazio arlotik pertsona guztiek osasunerako duten eskubidea aldarrikatzen dugu, bai gure lanaren bidez, bai, zeharka, asistentziaren, prestakuntzaren, hezkuntzaren eta eragin politikoaren eremuan egiten ditugun jardueren bidez.

Aldizkako barne komunikazioak edukitzen ditugu gure elkarte garapenaren oinarriarekin, Munduko Medikuek erakundeko kide diren edo izan diren boluntarioekin, zeintzuek jasotzen baitute gure proiektuei buruzko informazio eguneratua hainbat kanalen bidez, besteak beste, **Compartiendo/Partekatuz** aldizkako buletin elektronikoaren bidez.

Kanpoko komunikazioak bide hauen bitartez egiten dira: Munduko Medikuek erakundearen webgunea, Munduko Medikuek erakundearen sare sozialak (Whatsapp, Facebook, YouTube eta Instagram) eta bitarteko, elkarte eta erakundeekiko komunikazio elektronikoak.

Munduko Medikuek erakundeari buruz 2023an nabarmendu beharreko albisteetako batzuk honakoak izan dira: **Barakaldon** immigrazio programarako lokal berri bat ireki da, eta **Euskadin Prostituzio egoeran dauden emakumeentzako Gizarteratze eta Laneratze Plana** erakundearen esku-hartze eremu berria jarri da abian, kolektibo horri bere eskubideak berreskuratzeko aukera emango dioten alternatiba erreal eta eraginkorrak bilatzeko xedearekin.

Bestalde, estaldura eman diegu **erakundeak aurturten antolatutako ekitaldiei**:

“Arrazakeriaren Aurkako Jabekuntza Eskola” edizio berri bat, “Arrazismoak historizatuz” Arrazakeriaren Aurkako Jardunaldia, “Zergatik hitz egin arrazakeriaren aurkako hezkuntzaz?” Solasaldia edo “Afrikan Murgiltzen” erakusketa ibiltariaren kokalekuak.

Sarean lan egiten duten beste erakunde batzuekin batera izandako parte-hartzeari edo laguntzari buruzko informazioa eman dugu, esaterako, “ZAS! II. Biltzarra”, “Salerosketaren aurkako mahaia” edo “Munduko arrozak”. Era berean, hainbat kanpaina parte hartu dugu, esaterako, Euskadiko GKE-en Koordinakundearekin “6 gradu bereizketa” kanpaina, eta bisita interesgarriak jaso ditugu, hala nola “Kulturarteko Hiriak” sarearena.

Aurturten ere, ohikoa denez, erakundearentzat **funtsezkoak diren datu gogoangarriekin** zerikusia duten jardueren berri zabaldu dugu, hala nola Kultura Aniztasunaren Eguna, Afrikaren Nazioarteko Eguna, Errefuxiatuen Munduko Eguna, Sexu Esplotazioaren eta Pertsonen Salerosketaren kontrako Nazioarteko Eguna, Osasun Mentalaren Eguna, Emakumeen kontrako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna eta HIESaren Prebentzioarako Munduko Eguna.

Bestalde, ezin zen falta **Boluntarioen Nazioarteko Eguna**, funtsezkoak baitira gure erakundearentzat. 2023an haien lana eta solidaritatea ikusarazten jarraitu dugu,

KOMUNIKAZIOA ETA ERAGIN POLITIKOA



beren esperientzia partekatzeko [Historias de Voluntariado](#) gunean parte hartuz. Aurten, Erakundeekiko Aliantzen eta Komunikazioaren arloko pertsonak izan dira protagonista, baita Arabako egoitza berriko boluntarioak ere.

Jakina, **Munduko Medikuen aldarrikapen kanpainak** ere partekatu ditugu, besteak beste, honako gai hauei buruzkoak: osasun sistema publikora sartzeko oztopoak, Osasun Publikoa ez desegitea, Mediterraneoko heriotzen salaketa, M8an deitutako manifestazioen babesa, txertoak jasotzeko eskubidea edo/ eta salerosketaren aurkako babes lege berri baten eskaera. Euskadin, halaber, Osakidetza desegitearen aurka ere mobilizatu gara.

Nazioartean, laguntza eskatu dugu Siriako eta Turkiako lurrikararen edo Marokoko lurrikararen ondorioz larrialdiko gure programetarako; Ukrainako urterik luzeena salatu dugu; Melillako sarraskiaren urteurrena; eta askotan eskatu dugu Gazako su-etena, herritarren eta lurraldeko gure langileen bizitza babesteko.

- 📷 [1] [Historias de Voluntariado 2023 kanpaina](#). [2] [Prostituzio egoeran dauden emakumeentzako irtenbide errealak eta bideragarririk eraikitzen](#). [3] "Defenda dezagun Osasun Publikoa" kanpainaren kartela. [4] "II. ZAS! Biltzarra" kartela. [5] Munduko Medikuek erakundearen Barakaldoko lokalaren inaugurazio kartela.

Munduko Medikuek erakundearen jarduera osoa irizpide zorrotzekin ikuskatzen du GGKEak, eta misioa eta helburuak betetzen diren eta funtsen iturriak zein diren eta zertarako erabiltzen diren aztertzen ditu. Lealtad

Fundazioan egindako jarduerak eta finantzaketa ere ikuskatzen dira. Horrez gainera, erakunde pribatuek zein publikoek –eta gure balioek– kontuak gardentasun handienarekin ematea eskatzen digute.

Gardentasun eta kalitate zigiluak



Coordinadora
de ONGD-España




2023KO EMAITZAK



GURE KONTUAK 2023 MUNDUKO MEDIKUAK

NON EGITEN DUGU LAN




ELKARTASUNA


PARTEKATUKO DUGU?

 ¿COMPARTIMOS
 SOLIDARIDAD?



ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA GIZARTE ERAKUNDEAK

Alegría-Dulantzikoko Udala ■ Arabako Foru Aldundia ■ Barakaldoko Udala ■ Beraca Elkartea (Bizkaia) ■ Berakah Programa (Araba) ■ Berdintasun Ministerioa (Emakumeen Institutua) ■ Beste BI Plataforma ■ BHI San Adrian (Bilbao) ■ Biasteriko Udala ■ Bilboko Udala ■ Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako Taldeen Koordinakundea ■ Bizkaia Gara ■ Bizkaiko Foru Aldundia ■ Bizkaiko Gurutze Gorria ■ Durangoko HHI ■ EHuko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea Gipuzkoa ■ Eibarko HHI ■ Emakunde-Emakumearen Euskal Institutua ■ Emakunderen Sexu esplotaziorako helburuekin pertsonak salerostearen kontrako Mahaia ■ Euskadiko GGKE-en Koordinakundea ■ Euskal Agentzia Eusko Jaurlaritzaren HIESaren Planaren Departamentua ■ Eusko Jaurlaritza ■ Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ■ Eusko Jaurlaritzaren Iragaitzazko Pertsonen Erakundearteko Mahaia ■ Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzarako Euskal Agentzia ■ Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Immigrazio Foroa ■ Gipuzkoako Foru Aldundia ■ Gurutzetako Ospitalea ■ Harresiak Apurtuz (Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE-en koordinatzailea) ■ Legazpiko HHI ■ Maristak Bilbao (Bizkaia) ■ MigraCovid Sarea ■ NextGeneration EU ■ Nicolás Larburu HHII (Barakaldo) ■ Osasunaren Aldeko

Euskal Foroa ■ Oyón-Oiongo Udala ■ Pobreziaren eta Gizarte Bazterketaren kontrako Borrokarako Europar Sarea Euskadin (EAPN Euskadi) ■ Red Vasca Antirumores/Zurumurruren Aurrakako Sarea (ZAS) ■ Salvatierra-Aguraingo Udala ■ Sunu Gaal Elkartea ■ Zumarragako HHI

ERAKUNDE PRIBATUAK

Aero-Ferr (Bizkaia) ■ A Fin de Cuentos (Bizkaia) ■ Aldaketa Soziala (Bizkaia) ■ Banaketa Solidarioa Fundazioa (Bizkaia) ■ Bilbao Exhibition Centre (Bizkaia) ■ Cadvision (Bizkaia) ■ Cafés Baqué (Bizkaia) ■ Cafés La Brasileña (Araba) ■ Coca Cola European Partners Iberia (Bizkaia) ■ Danobat Group (Gipuzkoa) ■ Deurbe Arquitectura (Bizkaia) ■ Ekin (Bizkaia) ■ Entrecanales Domecq e Hijos (Madrid) ■ Erreka (Gipuzkoa) ■ Gesducón (Bizkaia) ■ Gondra Barandiarán Fundazioa (Bizkaia) ■ Industrias Tajo (Gipuzkoa) ■ Inpesca (Bizkaia) ■ Irizar (Gipuzkoa) ■ Jayroa Hermanos Fundazioa (Bizkaia) ■ Kaiku (Bizkaia) ■ Krea (Gipuzkoa) ■ La Caixa Fundazioa ■ Maier (Gipuzkoa) ■ Mikel Uriarte Fundazioa (Bizkaia) ■ Orona (Gipuzkoa) ■ Plastigaur (Gipuzkoa) ■ Salto Systems (Gipuzkoa) ■ Sareteknika (Gipuzkoa) ■ Starbucks (Madrid) ■ Susana Monsma Fundazioa (Bizkaia) ■ Tourné Bilbao (Bizkaia) ■ Transportes Chus (Bizkaia) ■ Ulma Fundazioa (Gipuzkoa) ■ Vital Fundazioa (Araba)

ESKERRIK ASKO! 
¡GRACIAS! 

NOLA LAGUNDU

MUNDUKO MEDIKUAK ERAKUNDEARI

Munduko Medikuek pertsona guztiek osasunerako duten eskubidearen alde lan egiten duen erakundea da. 1995az geroztik du Munduko Medikuek Euskadin ordezkaritza, eta gizarteratzearen, sentsibilizazioaren, eraldaketa sozialerako hezkuntzaren eta eragin politikoaren arloetan lan egiten du. Zure laguntzak bizitzak alda ditzake. Munduko Medikuek erakundeari lagunduz gero, pertsona ahulenei, baztertuei edo hondamendi naturalen, goseteen, gaixotasunen, gatazka armatuen edo indarkeria politikoaren biktimei osasunerako sarbidea hobetzen lagunduko diezu.

ZURE DENBORAREKIN: EGIN ZAITEZ BOLUNTARIO!

Munduko Medikuek boluntarioz osatutako erakundea da, ekintzarako eta partaidetzarako gunea, non lagun baitezakezu bertatik bertara errealitate bidegabea aldatzen. Boluntarioek osasun sistema publikorako sarbideetik baztertuta edo egoera zaurgarrian dauden pertsonen eskubideak defendatzeko jarduten dute, eta horretarako mobilizatzen dira. Izaera solidarioa baduzu eta mundu zuzenago baten

alde borrokatu nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan gure egoitzan. Zure zain gaudel!

DIRUAREKIN

Bat egin Munduko Medikuek erakundearekin, modu egonkorrean edo puntualean lagunduz. Hainbat eratarik lagun diezagukezu: izendun txeki bat egoitzara posta bidez bidalita, banku transferentzia bat eginez gure kontura, Bizum bidezko ordainketa batekin, informazioa emateko mezu elektronikoa bat bidaliz. Deitu eta hitz egingo dugu!

GURE PROIEKTUAK BABESTUZ ETA ZABALDUZ

Gure lana ezagutu eta gure kanpainak zure kontaktuen artean zabaltzea ditzazun gonbidatzen zaitugu. Zatoz Munduko Medikuek erakundera Bilbon, Barakaldon edo Gasteizen, bisitatu [Munduko medikuek](#) erakundearen webgunea eta gure sare sozialak. Jarraitu gaitzazu [Facebook](#) / [Instagram](#) / [YouTube](#); parte hartu, partekatu edukia eta bidali iruzkinak edo iradokizunak.



KUTXABANK

ES15 2095 0368 8091 0040 4807



BIZUM 00559

MÉDICOS DEL MUNDO EUSKADI





**COMBATIMOS TODAS
LAS ENFERMEDADES,
INCLUIDA LA INJUSTICIA**



**GAIXOTASUN GUZTIEI
EGITEN DIEGU AURRE,
INJUSTIZIARI BERARI ERE**



Munduko Medikiak

www.medicosdelmundo.org

Bailén 1, etxabea
48003 Bilbao
944 790 322

euskadi@medicosdelmundo.org

San Juan 12
48901 Barakaldo
608 218 396

euskadi@medicosdelmundo.org

Kubo 1
01001 Vitoria-Gasteiz
653 994 567

araba@medicosdelmundo.org